

ADIN GUZTIETARAKO JOLASAK

Osasunari eta bizimoduari buruzko XII. Jardunaldiak

2018ko irailaren 28a

Helburuak:

- Jarduera fisikoa eta dibertimendua sustatzea, osasun ona edukitzeko funtsezko osagai diren heinean.
- Bereziki auzo hauetako (Judimendi, Arana...) eta orokorrean Gasteiz osoko adin guztietako pertsonen parte-hartzea sustatzea.
- Belaunaldi arteko balioak, lankidetzak, kooperazioa, aniztasuna eta errespetua sustatzea; bai pertsonen artean, baita inguruarekiko ere.

Izen-emateak:

- **Irailaren 5a eta 25a bitartean** egongo da aukera, EDIREN osasun kooperatibaren lokaletan, 09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era, dagokion fitxa berez. Izena emateko formulario hemen ere aurki dezakezue: www.ediren.com/blog. Behin beteta, emailez bidali daiteke helbide honetara: kooperatiba@ediren.com. Izen-ematea doakoa izango da.
- Antolakuntzak 6 pertsonako taldeak osatuko ditu, izena emandako pertsonen adinaren arabera.
- Pertsona talde naturalek ere eman ahal izango dute izena, talde osoak eratuz edo beste batzuk osatzeko.

Ezaugarriak:

1. Talde bakoitza 6 pertsonaz osatua egongo da.
2. Taldeak belaunaldi artekoak eta anitzak izango dira.
3. Talde bakoitzak hiru adingabe edukiko ditu, gehienez.
4. Talde oso berberak ezin izango du bi aldiz parte hartu, baina bai pertsonak, beste talde baten barruan.
5. Talde bakoitzak izen bat aukeratu du, proba guztietan horrekin identifikatzeko.
6. Identifikazio-txartela: Talde bakoitzeko ordezkariak identifikazio-txartel bat edukiko du, taldearen izenarekin, parte-hartzaileen izenekin eta beren adinekin. Txartel horretan proba bakoitza egiteko denbora jasoko da, baita proba bakoitzaren ebaluazioa ere (semaforoa: berdea=oso ondo, horia=kili-kolo, gorria=txarto).

7. 10 probak bukatuta, txartela entregatuko da izena emateko mahaian.
8. Antolakuntzak balorazioa egingo du eta talde irabazleari opariak entregatuko zaizkio:
9. Jokoetan parte hartzen duten pertsonak, heltzen diren ordenaren arabera eta agortu arte, PINTXO OSASUNGARRI BAT hartzeko TXARTEL bat jasoko dute. Horrela, Edirenek antolatutako pintxo osasungarrien lehiaketara aurkeztutako pintxoetako bat probatu ahal izango dute, arratsalde horretan bertan izango baita Judimendi parkeko Zabaltegi tabernan.

Arauk:

1. Errespetatu zure kideak, koordinatzaileak eta abar.
2. Zaindu materiala eta ingurua (parkea).
3. Ez haserretu proba ez bada ondo irteten. Garrantzitsuena parte hartzea eta ondo pasatzea da.
4. Gozatu jokoaz besteekin batera.
5. Ez du bizkorrenak irabaziko, baizik eta talde gisa ondoen egiten duenak.
6. Erlazionatu zaitetz nagusi, gazte eta haurrekin.
7. Aprobetxatu aukera hau une atsegin pasatzeko.
8. Jarduera fisikoa eta jokoak garrantzitsuak dira osasun ona izateko.